

SEGREGAZIOAREN KONTRAKO
mahaiari begirako
LABen dekalogo

Sarrera: segregazioaz ari garenean, faktore bat baina gehiago daude, baina arrazoi nagusia sozioekonomikoa da; gainera, sarritan jatorriarekin batera gurutzatua egoten da inklusioa sustatu beharko luketen politika publikoen faltagatik. Gauza jakina baita, Atzerritar Legearen eraginez hainbat oztopori aurre egin behar diotela eta bizi baldintza duinak ziurtatuak izateko zailtasun handiagoak dituztela. Gurean indarrean den eta sare desberdinetan (doako ikasketak eskaintzen dituen eskola publikoa -% 50,8- eta oraindik kuotak kobratu izan diren sare itunduan Gizarte Ekimena -% 39,5- eta Ikastolak -% 9-, zeinetan ikastola batzuek beka sistema propioaren bidez zaurgarritasun egoeran diren familiei kuotak kobratzeari uko egin dioten) antolatzen den Hezkuntza Sistemak eragin nabarmena izan du ikastetxeen artean dagoen ikasleen arteko banaketa desorekatuan. Honek ondorio larriak ditu: a) lehenik eta behin, ikasle horien ibilbide akademikoan eta desberdintasun sozioekonomikoen iraupena iraunaraztean eta areagotzean; b) bigarrenik, eskola publikoaren azpifinantzazioan eta honen kalitatean; eta d) hirugarrenik, euskararen ezagutzan eta horren bermerako euskarazko murgiltze ereduaren erabateko hedapenean.

Ikasleen eskolaratzea eta planifikazioaren deszentralizazioa

1 **Gizarte kohesioa oinarri:** gizarte kohesioa eta, ondorioz, ikasleen aukera berdintasuna erabakigarria izan behar da hezkuntza sistemaren planifikaziorako, familien eskola erabakitzeko eskubidearen ginetik. Gizarte kohesioaren printzipioak herrietan ditugun askotariko errealitateei eta sare ezberdinei eragiten die. Planifikaziori loturiko araudi berria behar da, ikaspostuen gain-ekaintza mugatzeko hezkuntza-politikak aplikatuko dituen, D ereduko sare publikoa ardatza izatea bultzatuko duena eta planifikazioari loturiko erabakiak tokiko errealitateari erantzunez era deszentralizatuan hartzea ahalbidetuko duena. Zaurgarritasun-Indizea eta horren aplikazioa hobetu behar dira, errentari loturiko datu objektiboagoak aintzat hartuz. Ikastetxe berdinean zein ingurukoekin alderatuz eskolaz kanpoko jarduerak zein irteerak sortzen dituzten segregazio egoerak aztertu behar dira, tokian toki behar diren neurri konkretuak ezartzeko, hauek ekitateari eta justizia sozialari erantzun diezaioten.

2 **Ikasleen eskolaratzea eta ikaspostuen planifikazio deszentralizatua, udalerrietatik abiatuta:** Hezkuntza-aren alorrean segregazioari aurre egiteko, ikasleen eskolaratze prozesuak -matrikulazio arrunta eta bizia- eta ikaspostuen planifikazioa eragin-eremuka eta herrika garatzea eskatzen du LABek, tokian tokiko errealitateari egokituta, gain-ekaintza mugatuz -planifikazioaren ardatza D ereduko ikaspostu publikoak izanik- eta matrikulazioa doitu. Eragin-eremuetan gainekaintza murriztea lehentasunez D eredukoak ez diren eta laikoak ez diren ikaspostuetatik hasi behar da.

Bestetik, matrikulazioaren kudeaketa bulego bakar eta loteslearen bitartez egin behar da, eta kontrol neurri egokiak ezarri behar dira, besteak beste, matrikulazioan egon daitezkeen irregulartasunak ekiditeko. Gainera, gura etortzen diren gurasoei behar bezalako informazioa eman behar zaie euskalduntzearen garrantziaz eta euskalduntzeko dituzten aukerez, haurrak D ereduari matrikulatzera animatuz.

3 **Bizitoki-segregazioaren aurrean auzo barrutia zabaldu:** Eskola auzoaren isla bada, auzo barrutia zabaldu behar da egoera sozioekonomiko ezberdinak dituzten auzoak barne hartzeko eta bizitoki segregazioa eskolan ez erreproduzitzeko. Horrela, banaketa orekatua eta elkarbizitza errazteko baliagarria izango da.

4 **Matrikulazio baremo bateratua hezkuntza sistemako ikastetxe guztietarako:** Matrikulaziorako baremazioari dagokionez, neurri gehigarriak ezarri behar dira eta baremazioa homologatua izan behar da sare eta ikastetxe guztietarako. Hurbilekoa indartzeko ematen den puntuazioa gehitzea proposatzen dugu -betiere D ereduko eta laiko den eskaintzakoa bada-, eta kooperatibako kide izateagatik, langileen seme-alaba izateagatik edo ikasle ohien seme-alaba izateagatik puntuazio gehigarriak ez izatea.

Laikotasunaren bermea

5 **Laikotasunaren bermea:** Eragin eremu guztietan eskaintza laikoa bermatu behar da, izaera erlijiosoa segregaziorako iturri bihurtu ez dadin. Aniztasunaren trataerari eta inklusioari erantzuten dioten hezkuntza-komunitateetan, erlijio ikastetxeetatik kanpo kokatu behar da. Funts publikoak jasotzeko ikastetxe guztiek bete beharreko betekizuna izan behar da laikotasun erreala, honen inguruko ikuskaritza eta kontrola areagotu behar dira. Lanbide Heziketan arreta berezia jarri behar da eskaintza benetan laikoa izan dadin eta erlijio kutsua duenari mugak jartzeko.

Euskarazko eskaintzaren bermea

6 Euskaraz ikasteko eskaintza bermatu: Euskara segregaziorako elementu bihur ez dezaten, baizik eta inklusiorako elementu izateko, neurriak behar ditugu. Hizkuntza ereduen sistemarekin ikasle askori euskaraz ikasi eta bizitzeko eta euskal kultura ezagutzeko aukera ukatu egiten zaie. Horregatik, eragin eremu bakoitzean D ereduan ikasteko eskaintza nahikoa egon behar da. Aurrekoari lotuta, lehentasunez Lanbide Heziketa euskaldundu behar da eta D eredia orokortu eta hedatu behar da. Gainera, ikasle guztiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean B2 maila eskuratzen dutela bermatu behar da, eta hori funts publikoak jasotzeko betekizuna izan behar da.

Irakaslegai eta hezitzailegaiek gutxienez euskarazko C1 hizkuntza gaitasuna izan dezaten, haien preskakuntzaren ardura duten eskolen eskaintza euskalduna izan behar da halaberrez.

7 D ereduko ikaspostu publikoak hedatu: Eskola publikoen arteko fusioak gertatuz gero, D ereduko ikaspostuen galerarik ezin da egon. D ereduko ikaspostu publikoak hedatzeko planifikazioa behar da.

Konfluentzia Euskal Eskola Publiko Komunitarioa ipar

8 Konfluentziaren norabidean urratsak ematea: Euskal eskola publiko komunitario baten alde borrokan jarraitu behar da, Euskal Curriculumean, doakotasunean, laikotasunean, inklusioan, ekitatean, euskararen murgiltze ereduan eta pedagogia feministan oinarrituko den sare publiko bakar, berri, propio, burujabe, euskaldun eta deszentralizaturen alde. Honakoak dira LABen proposamenak:

- Azpifinantzaturik dagoen egungo sare publikoa –D eredukoa– dimentsionatzea, eta bertan Euskal Herria aitortuko duen curriculum lantzea eta orokortzea. Sare publikoa planifikazioaren ardatza izateaz gain, azpiegiturak hobetzea eta berriak sortzeko finantzazioa handitzea.
- Jaiotze tasaren beherakadak eragindako gaireskaintza ikusita, ikastetxe berririk ez ituntzea eta alde sozialarekin adosturiko borondatezko publikaziorako araudi bat sortzea. Bide beretik, D eredukoa ez den eta laikoa ez den ikastetxe berrien sorkuntzarik ez ahalbidetzea. Horrekin batera, funts publikoak jasotzeko bete beharreko baldintzak betekizun gisa ezartzea, ituntze unibertsalarekin bukatzen hasteko neurri gisa.
- Titulartasun partekatua arakatzea eta arautzea, izaera publikoko ikastetxeetan udalaren parte hartzea sustatuz. Horrela, finantziario publikoa jasotzen duten ikastetxeetan esku hartze publikoa legoke, udala edo mankomunitatea jabetzaren parte izanik eta kontrol publikoaren bermatzaile. Sare publiko berri bakarrerako bidean, trantsizio gisa baliatu litezke titularitate partekatu edo mistoko eskolak.

9 Auditoretza-unitatea, ikastetxe guztietako diru kontuak gardentasunez publiko egitea eta hauen kontrol publikoa: Konfluentziaren norabidean diru publikoaren kontrol publikorako neurriak ezinbestekoak dira. Besteak beste:

- Auditoretzak egiten direla eta funts publikoen erabilera era gardenean publiko egiten dela ziurtatu behar da, orain arteko praktikak gertatu ez daitezen –kuotak kobratzea edo ikasleen matrikulazioan tranpak egitea, adibidez–.
- Doakotasunaren bidean, funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeen –batetik, gizarte ekimenekoak, eta bestetik, ikastolak– derrigorrezko kuotak desagerrarazten joateko erabaki progresiboak hartu behar dira. Balioan jartzen ditugu doakotasunera bidean urrats propioak emanez kuotak jaitsi dituzten ikastolak.
- Horrez gain, eskola publikoetan salbuespenez egon daitezkeen kuoten jarraipena egin behar da, horiek, egotekotan, desagertu daitezen; eta diruaren kontrol publikoa gardentasunez publikatu behar da.

Eskola-segregazioari aurre egiteko neurriak langileekin adostu

10 Segregazioari aurre egiteko neurriak edota ikasleen eskolatze eta planifikazioari loturiko araubideak langileekin negoziatu eta adostu beharrekoak dira. Izan ere, araudi edota neurri horiek ikastetxeetan gauden langileoi eragiten digute. Hauek, araubidez osaturik dauden negoziazio mahaietan depositatu behar ditu Hezkuntza Sailak eta alde sozialarekin adostu behar ditu.

LAB¹
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA